

# PARTE HARTU

**Gi** | **20  
30**

Gipuzkoa  
irudikatuz



**NOLA**

**TAILER  
BATEAN  
PARTE HARTU  
ETA IKUSPEGI  
PARTEKATUA  
ERAIKI**

**ZE HAR+ IKERKETA TALDEA**



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)

Creative Commons lizentzia - Aitortu - Partekatu Berdin  
(CC-BY-SA)

UPV/EHU Zehar+ Ikerketa taldea  
2023-02-25 EU bertsioa

Ana Isabel Vergara  
Andere Ormazabal  
Antonio Casado da Rocha  
Cristina Peña  
Elizabeth Pérez-Izagirre  
Igor Ahedo  
Igor Alvarez  
Imanol Telleria  
Ion Arrieta  
Izaro Gorostidi  
Jon Umerez  
Juana Goizueta  
Libe Galdos Urbizu  
Lidia Caño  
Lucia Pérez Prat  
Luismi Uharte  
Luke Goñi  
Margaret Bullen  
Maidier Zilbeti  
Maitane Arnoso  
Mikel Torres  
Ekai Txapartegi  
Miriam Ureta  
Omar García Zabaleta  
Xabier E. Barandiaran



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)

# GONBIDAPENA

**D**esberdintasun sozial eta ekonomikoen gorakadaren eta Europako sistema politikoekiko mesfidantzaren aurrean, olatu deliberatiboa indartzen joan da, herritarrek politika publikoak egiten parte har dezaten bide berriak bilatzen dituen. Gobernuak eta erakundeek joera hori onartzen hasi dira, baina denborari eta baliabideei dagokienez ahalegin handia egitea eskatzen du.

## URTEBETEAN NOLA AZKARTU EZTABAIDA PROZESU BAT ETORKIZUN HURBILA IRUDIKATZEKO ETA ERRONKA NAGUSIAK AURRERATZEKO?

Esperientzia hibrido batera gonbidatzen zaitugu, zure ikuspegia beste batzuenarekin lotzeko, erronka horiei buruzko ikuspegi partekatua egituratzen joateko. Plataforma digitalaren eta hainbat ekitaldi edo tailer presentzialen bidez, Zehar+ taldeak ikertzaileak, herritarrak eta tokiko eragileak elkartzen ditu prozesu arin eta parte-hartzailean: galderak, erantzunak eta proposamenak jasoz lurralde osoan zehar.



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)

# GIPUZKOA

## IRUDIKATUZ

Zer-nolako Gipuzkoa nahi dugu 2030. urterako? Gi2030.eus lan-espazio presentzialak eta online interakzioa bateratzen dituen prozesu hibridoak osatzen dute, Decidim software librean oinarritutako partaidetza-plataformari esker. Prozesua 5 faseren arabera egituratzen da, eta parte-hartzaileek egindako galderen, herritarren eta ikertzaileen artean sortutako erantzunen, eta ikerketa taldeak egindako proposamenen arabera ematen da parte-hartzea.

**Gi2030** Gipuzkoa irudikatuz

Search

Euskera

Antonio Casado de Rocha

Parte hartu

Ezagutu

Gobernantza

GI2030-ti buruz

### Gipuzkoa irudikatuz

#Gi2030 · Galderak, erantzunak eta proposamenak partekatzen ditugu

**Galdetzen dugu**

04/02/2023 - 28/05/2023

**Ikusi faseak**

PROZESUA ? GALDERAK ? TAILERRAK BLOGA AGORA

Gi2030en ikerketa-ekintzan UPV/EHUK, Gipuzkoako herritarrekin eta gizarte-eragileekin batera, lurraldeak 2030erako dituen erronken ikuspegi partekatu bat sortzen du.

Etorkizunean Gipuzkoako erakundeetara eta/edo herritarrei eragingo dieten **galderak, erantzunak eta proposamenak bilatzen ditugu.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako prozesu honek, 2023an, ikertzaileak zabalduko ditu lurraldeko hainbat eskualdetan egingo diren tailer tematikoetan.

### Nola gauzatuko da?

GI2030en asmoa Gipuzkoako unibertsitatearen, erakundeen eta herritarren artean 2030erako Gipuzkoako lurraldearen erronken ikuspegi partekatua sortzea da, aurrez aurreko espazioetako elkarrekin eta 5 eremuren inguruko adostasun-puntuak bilduko dituen plataforma digital bat uztartzen dituen prozesu hibrido baten bidez:

- **PERTSONAK:** bizikidetza, migrazioak eta talentua.
- **ZIENTZIA:** berrikuntza eta teknologia.
- **KLIMA:** krisi ekologikoa eta lurraldea.
- **EKONOMIA:** energia eta enpresa.
- **ONGIZATEA:** osasuna eta zaintzak.

6	Jarraitzeari utzi
ZER ERABAKI 2023ko Gipuzkoaren Ikuspegi Partekatuaren inguruko dokumentua	
NORK PARTE HARTZEN DU Herritarrek. Unibertsitateko kideak. Eragile politiko eta sozialak.	
NOLA ERABAKITZEN DA? Aurrez-aurreko tailerrak eta harreman digitalak	
SUSTATZAILAIREN TALDEA Zehar+ ikerketa elkargunea	
HASIERA-DATA 2023(e)ko Otsailak 1	

# GALDERAK SORTU

Hainbat tailer presentzialek galderak aztertzen dituzte Gi2030ean 5 gai nagusietako bakoitzerako. Tailer horietan izena emateko, talde motorrak gonbidapenak luzatzen ditu, edo parte-hartzaileek eurek zuzenean.

20 GALDERA Galdera berria +

Antolatuta galderak honen arabera: Emaitzak, orrialdeko: 20 ▼

gehien jaso duena ▼

Bilaketa-baldintzak aldatzen direnean, hurrengo formularioak dinamikoki iragazten ditu bilaketa-emaitzak.

Bilatu 🔍

**EGOERA**

- Guztiak
- Onartuta
- Ebaluatzen
- Erantzun gabe
- Baztertua

**GAIA**

- Denak
- Zeharkakoa
- Ongizatea
- Zientzia
- Klima
- Energia
- Pertsonak

JATORRIA

SURGE DESPUÉS DE HABER VISTO ESTE VIDEO

La ciencia, tecnología y innovación en el hoy, mañana...

¿Qué rol jugará la ciencia, tecnología e innovación en el combate a la pandemia?

- TÍTULO
- PALABRAS CLAVE
- JUSTIFICACIÓN: ¿POR QUÉ Y PARA QUÉ SE PLANTEA ESTA PREGUNTA?

• ¿A QUIÉN VA DIRIGIDA LA PREGUNTA?  A la ciudadanía  A la administración

**Ba al dago teknologiarik pandemia-egoeretan egoitzak hobeto zaintzeko?**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza | Tailerren lehena saioa

Beste pandemia baten egoera, ez dugu galdetzen: Ba al dago irtenbide teknologikorik egoitzen... [Zientzia](#)

SORTZE-DATA: 21/02/2023

▲ 6 JARRAITZEN

0

3 👍

**GALDERA SORTZEN ZAIZU AURKEDURA HAU ENTEZIN OINDORAT**

Zientzia eta teknologiaren garapenak izango duen eragin soziala kontuan hartzen [da] ?

- Ikerketak
- Gai-irudiak
- Justifikazioa: Zergatik eta zertarako planteatu da galdera?

•  Baita zuzenean saioa  Berrikuntza eta Iker

**Zientzia eta teknologiaren garapenak izango duen eragin soziala kontuan hartzen [da] ?**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza | Tailerren lehena saioa

Zientzia eta teknologiaren garapenak izango duen eragin soziala kontuan hartzen [da] ? Nola... [Zientzia](#)

SORTZE-DATA: 22/02/2023

▲ 6 JARRAITZEN

0

3 👍

**Z** atoz hurrengo topaketetara eta parte hartu. Tailer bakoitzak sartzeko bi bide ditu: gonbidapen zuzenak eta zuzenean plataforman izena emateko aukera.

Beraz, plataforman alta ematen duen edonork aukera izango du galdera berriak argitaratzeko, dauden galderak komentatzeko edota babesteko, tailerretan izena emateko eta jakinarazpenak jasotzeko plataforman parte hartzeko jarduera dagoen bakoitzean.



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)

Tailerrak euskaraz eta erdaraz egiten dira. Parte hartzaile baten hitzetan,

**«GUSTATZEN ZAIT  
PROZESUA, EZ BAITU  
ZUZENEAN ARAZOEN  
KONPONBIDEA BILATZEN,  
BAIZIK ETA ARAZOEN  
IDENTIFIKAZIOAREKIN  
HASTEN DA, ZERK  
KEZKATZEN GAITUEN, ZER  
JOTZEN DUGUN  
GARRANTZITSUTZAT»**

## **ERANTZUNAK SORTU**

Aurrez aurreko tailerretan, Gi2030.eus plataforman egindako galderen partaidetzatik ateratako informazioa sartzen da. Herritarrek eta ikertzaileek elkarrekin lan egiteko espazio honetan landuko dira planteatutako galderen erantzunak. Plataforman erregistratu diren pertsona guztiek aurrez aurreko



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)

tailerretan landutako erantzunak komentatu eta babestu ahal izango dituzte.

# PROPOSAMENAK EGITEN LAGUNDU

Ikerketa taldeak proposamenak egin eta argitaratu egiten ditu, aurreko erantzunei buruzko lanaren emaitza gisa. Plataforman parte hartzen dutenek ere proposamen horien jarraipena egin ahal izango dute, eta haiekin elkarreragin. Proposamenak 5 ardatz tematikoetako bakoitzerako landuko dira, eta «Ikuspegi partekatua» dokumentuan jasoko dira. Txosten hori prozesuaren 1. emaitza izango da.

# PLATAFORMAN PARTE HARTU

**P**lataforman argitaratutako eduki guztien jarraipena egin dezakezu (tailerrak, galderak, erantzunak eta proposamenak). Era berean, zure intereseko edukiak komentatu, babestu edo jarraitu ditzakezu, baita zure kontuan eta posta elektronikoa abisuak jaso ere. Elkarreragin horrek asko laguntzen digu prozesuaren azken proposamenak egiten.




Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)



**G**ogoratu zure jakinarazpenen konfigurazioa berrikustea, azken berriak ez galtzeko, eta zure parte-hartzaile profila aberasteko argazkia edo informazioa gehituz.

Decidim Barcelonako bideo honek plataforman alta emateko, parte-hartzailearen profila eguneratzeko eta plataformaren jakinarazpenak kudeatzeko prozedura azaltzen du.



The screenshot shows the user profile configuration page for 'Gipuzkoa irudikatuz' (GI2030). The page title is 'Erabiltzaile-ezarpenak - Jakinarazpen-konfigurazioa'. On the left, there is a sidebar menu with options: Kontua, Jakinarazpen-konfigurazioa (selected), Taldeak, Nire interesak, Nire datuak, and Ezabatu nire kontua. The main content area is titled 'Jakinarazpenak jaso nahi ditut' and contains several toggle switches, all of which are turned on. The toggles are: 'Nire jarduera, norbait nire proposamena iruzkindu edo aipatzen dudanean', 'Jarraitzen dudán guttía', 'Bidali jakinarazpenak posta elektronikoz', 'Mezu elektronikoa bat jaso nahi dut jakinarazpen bat jasotzen dudán bakoitzean', 'Buletinak', 'Buletinak jaso nahi ditut', 'Edonoren mezu zuzenak jasotzea', 'Baimentzea edonork bidali diezadala mezu zuzena, nahiz eta nik jarraitu ez.', 'Administratzaileak', and 'Mezu elektronikoa bat jaso nahi dut zerbaít neunitz erreportatzen den bakoitzean'. At the bottom of the main content area, there is an orange button labeled 'Gorde aldaketak'.

Iruzkina idaztean, beste pertsona batzuk ere aipa ditzakezu, “@” ikurraren bidez, edo, are gehiago, haiei jarraitu eta plataformaren barruan duten elkarreragina ezagutu.

**E**gin iruzkin bat eztabaidagunean Lehen urratsak plataforman, edo helaraziezaguzu zure kontsulta, zalantza edo iradokizuna [info@gi2030.eus](mailto:info@gi2030.eus) helbide elektronikora.



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)



Talde bideratzailea, 2023-2-21: Gorka Egia, Julia Cocho, Lucía Pérez Prat, Ekai Txapartegi, Luke Goñi, Antonio Casado da Rocha.  
Irudia: Asier Amezaga @Komunikatik

# ELKAR IKUSIKO?

---

Talde bideratzailea tailerrez tailer aldatzen da, gaiaren eta agendaren arabera. 2023an tailerrak egingo ditugu zure lantoki, ikastegi edo bizilekutik gertu. Eta beti aurki gaitzakezu [info@gi2030.eus](mailto:info@gi2030.eus) helbidean edo [@Gi2030](https://www.instagram.com/Gi2030) kontuan.



Gipuzkoa  
irudikatuz

[gi2030.eus/](https://gi2030.eus/)